


MENDI TOUR ARABAKO MENDIALDEA VITAL FUNDAZIOA 2023

Apirilak 21 | Ostirala




Sail Ofiziala

A BAFFIN VACATION

Erik Boomer eta Sarah McNair-Landry 45 eguneko espedizio batean murgilduko dira Baffin irlako paraje urrun eta galduetan barrena. Eskalatzeko horma ikusgarriak eta ur-lasterretako kayakean nabigatzeko ibai esploratu-gabeak aurkitzea dute helburu.

**Iraupena 12' / Jatorrizko bertsioa: nglea / Azpit: EU-ES*




Sail Ofiziala

ADRENALINE SUCKS

Matthias Giraud eskiatzaile eta BASE jauzilari ezagunak abentura kirolei buruz duen ikuspegia esplikatu du, eta argitu du zergatik ez duen bere burua "adrenalinaren menpeko" jotzen.

**Iraupena 12' / Jatorrizko bertsioa: nglea / Azpit: EU-ES*



Sail Ofiziala


INTO THE ICE

Hego Amerikako muturrean dagoen ia esploratu gabeko mendikatea da Darwin. 2022ko udaberrian, zazpi lagunek nabigatu, eskalatu eta esploratu zuten, bertako glaziarrek ngle-aldaketari nola erantzuten ari diren ikertuz, eta Roncagli eta Cerro Sara mendien lehen igoerak osatuz.


**Iraupena 30' / Jatorrizko bertsioa: gaztelania/nglea / Azpit: EU-ES*

mendi tour

Lo mejor del Mendi Filmeko onena



Sail Ofiziala



Sail Ofiziala



Epaimahaiaren Saria

IRETARGI

Otsoen ilargia, 2022ko otsaileko ilargi betea, Etxaurin. Dantza bertikalaren eta eskaladaren arteko fusioa. Ilargia orraztuz dantzan dabilen lamia, eta eszenarekin liluratuta dagoen kamera. Phelipe Eizagirrek, Yhabriek eta Janire Etxabek gorpuztutako sekuentzia artistikoa.

**Iraupena 3' / Jatorrizko bertsioa: hitzik gabea*

NEW WAY UP

Gulmit Tower (Karakorum) granitozko pinakulu teknikoa da. Fabi Buhl-ek eta Will Sim-ek, mendiaren oinarriko hurbilketa parapentean osatzea erabaki dute, arriskuz betetako glaziar eremua saihestuz. Himalaiako eskaladan norabide berri bat ezarri duen bidaia epikoa.

**Iraupena 25' / Jatorrizko bertsioa: ingelesa / Azpit: EU-ES*


THIS IS BETH

Beth Rodden eskalatzailearen ibilbide arrakastatsuak, errealitate gogorra du ezkutuan: gorputz-itxurarekin eta barne-hizketaldi krudelekin borroka betean bizi izan da. Dinamika suntsitzaile hori eraldatzen asmatu eta, eskaladari eta bere buruari zor dion maitasuna berraurkitu du, ordea.

**Iraupena 18' / Jatorrizko bertsioa: ingelesa / Azpit: EU-ES*

mendi tour

Lo mejor del
Mendi Filmeko onena



Sail Ofiziala

YHABRIL: EL BUSCADOR DE LUZ

Nola prestatzen du abentura-argazkilari batek haren hurrengo lanerako plangintza osoa? Kasu honetan, ultratrail lasterketa gogorrenetako bat Pirinioetan: Canfranc-Canfranc. Yhabril erreportajea ari da lanean: lo ordu gutxi, 50 kilometro 3 egunez, eta metatutako desnibel handia.

**Iraupena 8' / Jatorrizko bertsioa: gaztelania / Azpit: EU*